



## ANTZERKIGINTZA BERRIAK: “ANTZERKIGINTZA BERRIAK HAUTATZEKO DEIALDI IREKIA”

### 1. AURKEZPENA.

DSS2016k, Gasteizko Principal Antzokiak, Victoria Eugenia Antzokiak eta Arriaga Antzokiak abian jarri dute *Antzerkigintza Berriak* programa, antzerkirako sarbidea errazteko antzerkigile hasiberriei eta beste esparru artistiko batzuetatik (literatura, zinema...) datozen eta antzerkigintzari ekin nahi dioten sortzaileei.

Helburua sortzaileen eta antzerkigileen sarea osatzea da. Sare horrek, ohiko bakarlana eta hain ohikoa ez den talde-lana uztartuz, antzerkirako materiala sortuko du, eta hala teatro-konpainiek nola antzerkigileek eredutzat hartuko dute.

### 2. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen helburua da gehienez ere zortzi sortzaile hautatzea, antzezlan bat sor dezaten, arte eszenikoen profesionalak lagundutako prozesu batean.

### 3. XEDEAREN DEKRIPZIOA.

Deialdi publiko baten bidez, gehienez ere zortzi egile hautatuko dira, hiru hilabetez antzezlan bat egin dezaten, arte eszenikoetako profesionalak lagunduta.

Partaideek eginiko lanen artetik hiru aukeratuko dira eszenaratzeko, eta deialdia sustatzen duen antzokiek lanak ekoitziko dituzte.

Easo kalea, 43  
Donostia / San Sebastián  
20006 Spain

[www.dss2016.eu](http://www.dss2016.eu)  
[info@dss2016.eu](mailto:info@dss2016.eu)

T +34 943 483 344





Halatan deialdi honetan parte hartzen duten antzokien erakunde titularrek ekoizpenerako dauzkaten espazioak, azpiegitura, langileak eta material teknikoa lagako dituzte.

#### **4. PARTAIDEEN BETEKIZUNAK.**

Deialdian parte hartu ahal izango dute hala antzerkigintzari lotutako ibilbidea hasi duten pertsonak nola beste esparru artistiko batzuetatik (literatura, zinema...) datozen eta antzerkigintzari ekin nahi dioten sortzaileek, betiere Europako Batasuneko herrialdeetako batean bizi badira.

#### **5. ZENBATEKOA ETA BALIABIDEAK.**

Hautaturiko pertsonen 3.300 €-ko diru-laguntza emango zaie, proiektuan emandako denbora eta antzezlanaren itzulpen-eskubideen lagapena konpentsatuko dituen, eta Arte eszenikoetako tutoreekin eta profesionalekin egingo diren to-paketetako dietak ere ordaintzeko balioko duena.

Deialdi honetan parte hartzen duten antzokiek ekoizteko hautatzen badituzte, ustiapen-eskubideak ere lagako dituzte bi urterako, antzezlana muntatzen amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Ordainsari gisa, antzezlana eszenaratzen bada, Egile eta Editoreen Elkartearen tarifa orokorretan xedaturikoa jasoko da.

#### **6. ESKATUTAKO AGIRIAK ETA ESKABIDEA EGITEKO EPEA.**


Agiriak EAeko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira. Dokumentazio guztia (idatzia zein grafikoa) posta elektronikoz bidaliko da antzerkigintzak@dss2016.eu helbidera, eta gaian hau jarriko da: “Deialdia: dramaturgia berriak”. Eskabidea egiteko, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- NANaren fotokopia edo eskatzailea Europan bizi dela egiaztatzen duen agiria
- Curriculum vitae
- Motibazio-gutuna
- Sortu nahi den antzezlanaren abiapuntua azaltzen duen testua, 500 eta 3.000 karaktere artekoa (tarreak barne). Sorkuntza orijinalak eta berriak proposatu behar dira; hau da, inon argitaratu eta estreinatu gabeak, eta antzeko beste deialdi batzuetara aurkeztu gabeak.

Deialdi honetara aurkezteko, erabat onartu behar dira oinarri hauek.

Deialdia azaroaren 30eko 18:00etara arte egongo da irekita.

Deialdiari buruzko informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan antzerkigintzak@dss2016.eu helbidearen bidez.



## 7. BATZORDEA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK.

DSS2016k, Gasteizko Principal Antzokiak, Victoria Eugenia Antzokiak eta Arriaga Antzokiak batzorde misto bat eratuko dute arte eszenikoen profesionalekin, aurkezturiko hautagaitzak baloratzeko. Horretarako, honako irizpide hauek hartuko dituzte kontuan:

- Proposamenaren kreatibitatea eta kalitate artistikoa.
- Hizkuntza eszeniko berrien esplorazioa.
- Hautagaiak proiektuan parte hartzeko duen borondatea eta interesa.
- Curriculum vitae eta antzerkigintzaren eta/edo artegintzaren arloko esperimentzia.
- Proposamenaren bideragarritasuna (ekoizpenaren ikuspuntutik).

Batzordeak abenduaren 15ean jakinaraziko du ebazpena.


## 8. HAUTAGAIEN BETEBEHARRAK.

- Profesionalekin eta programako gainerako partaideekin egiten diren topaketetara joan behar dute. Arte eszenikoetako tutore eta profesionalekin egingo den lehenengo tailerra otsailaren 3an eta 4an izango da Gasteizen; bigarrena, martxoaren 8an eta 9an Donostian; eta hirugarrena, apirilaren 18an eta 19an Bilbon. Egunak aldatuko balira, alde aurretik jakinaraziko litzateke.
- Antzezlan-proposamena proiektuan ezarritako epeetan egin behar dute. Antzezlan-proposamenak maiatzaren 2rako amaitu behar dira, eta antzokiak maiatzaren 17an jakinaraziko dute zein hautatu dituzten ekoizteko.
- Eszenaratzeko hautatutako obren egileen kasuan, ustiatze eskubideak uztea DSS2016EUri eta antzokien erakunde titularrei bi urtez
- Laguntza onartzen dutela adierazten duen agiria sinatu behar dute, eta, horretan, laguntzaren baldintzak zehaztuko dira, eta antzerki-proposamena oso-osorik egingo dutela hitzemango dute.
- Beraien eskura jarritako espazioak erabiltzeko barne-arauak beteko dituzte (ordutegiak, segurtasun-protokoloak, materialen erabilera, erabil daitezkeen instalazioak...).

## 9. ORDAINTZEKO MODUA

Laguntzaren zenbatekoa honela ordainduko da:

- Zenbatekoaren % 30 deialdiaren ebazpenarekin emango da, egile bakoitzak laguntza onartzeko agiria sinatzen duenean;
- Gainerako % 70a, berriz, zein antzezlan-proposamen hautatu diren



jakinaraztean eta zerga-betebeharrak egunean daudela ziurtatzen duen dokumentazioa egiaztatzean ordainduko da.

## **10. DEIALDIAREN BALDINTZAK.**

### **10.1 Jabetza intelektual**

Partaideek hitzemango dute hala lehiaketara aurkezturiko proiektuak nola proiektuok jasotzen dituen material osoa orijinala dela eta ez duela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualeko eta/edo industrialeko eskubiderik.

Hautatu ez diren partaideek Jabetza Intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guzti-guztien titulartasunari eutsiko diote, bai eta egileen eskubide moralari ere.

Hautatutako egileek eskusiboki eta era baztertzailan lagako diete DSS2016EUri eta antzokien erakunde titularrei, bi urtez, egiten dituzten testuak erreproduzitzeko, banatzeko, itzultzeko eta jendaurrean argitaratzeko (bide elektronikoa barne) eskubidea, testuok argitaratzen edo eszenaratzen badira. Ordainsari gisa, antzezlan eszenaratzen bada, Egile eta Editoreen Elkartearen tarifa orokorretan xedaturikoa jasoko dute.

Aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-aldi horretan, egileak lagatako testua egin eta ekoitzi nahi badu, ekimen honen sustatzaileek baimen idatzia eman beharko dute alde zurretik.

Lagapen-aldia bukatzean, egileak nahitaez adierazi behar du bere testua Antzerkigintza Berriak egitasmoaren lehenengo edizioaren parte izan dela, testua zabaltzean, erreproduzitzean, banatzean, itzultzean zein jendaurrean argitaratzean.

Nolanahi ere den, hautagaiek dagozkien egile-eskubide moralak gauzatu ahal izango dituzte, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onesten duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat eginez. Deialdia egin duten erakundeek behar bezala gordeko dituzte eskubide horiek.

### **10.2 Datuak babesteko legea**

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen duenari jarraituz, partaideei jakinarazten zaie lehiaketaren edozein alditan ematen dituzten datu pertsonalak DSS2016 Fundazioaren titulartasuneko den eta Datuak Babesteko Espainiako Agentzian behar bezala inskribatutako fitxategi batean gordeko direla, lehiaketako partaidetza kudeatzeko eta lehiaketaren garapenaren, edukiaren eta emaitzen berri emateko.

Norbaitek nahitaez aurkeztu beharreko informazioa ematen ez badu edo datu okerrak ematen baditu, ezingo du lehiaketan parte hartu.



Partaideek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo aurka egiteko eskubideak gauzatu nahi badituzte, idatzia bidal dezakete helbide honetara: FUNDACIÓN DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN 2016 FUNDAZIOA, 1. 2 poligonoa, Easo kalea, 41-45, 61. etxe-saila, 20006 – Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

### **10.3 Konfidentzialtasuna**

Hautatuek isilpean gorde behar dute deialdi hau dela-eta eskuratzen duten informazio guztia, bai eta informazioaren beraren izaera dela-eta isilpean gorde behar den informazioa ere.